



**LANGABEZIAGATIKO DIRU-LAGUNTZAK JASOTZEN DITUZTEN 52 URTEZ GORAKO LANGILE LANGABETUAK  
KONTRATATZEA. ABENDUAREN 12KO 45/2002 LEGEA, BOSGARREN ALDI BATERAKO XEDAPENA  
(ABENDUAREN 13KO BOE)**

	HOBARIAREKIN	HOBARIK GABE
MUGAGABEAK:	<input type="checkbox"/> 1 5 0	<input type="checkbox"/> 1 0 0
DENBORALDIKOAK:		
Obra edo zerbitzu jakina	<input type="checkbox"/> 4 5 0	<input type="checkbox"/> 4 0 1
Inoizkako produkzio-arrazoiengatik	<input type="checkbox"/> 4 5 0	<input type="checkbox"/> 4 0 2
Bitartekoa	<input type="checkbox"/> 4 5 0	<input type="checkbox"/> 4 1 0
Trebakuntza	<input type="checkbox"/> 4 5 0	<input type="checkbox"/> 4 2 1
Praktikak	<input type="checkbox"/> 4 5 0	<input type="checkbox"/> 4 2 0
Beste zenbait kontratu	<input type="checkbox"/> 4 5 0	<input type="checkbox"/> 9 9 0

**ENPRESAREN DATUAK**

IFK/IFZ/AIZ

JN./AND.		IFZ/AIZ	KARGUA: (1)
ENPRESAREN IZENA		ENPRESAREN HELBIDEA	
HERRIALDEA	UDALERRIA	POSTA-KOD.	

**KOTIZAZIO-KONTUAREN DATUAK**

ERREGIMENA	PROB. KOD.	ZENBAKIA	KONTROL-DIGITUA	JARDUERA EKONOMIKOA
------------	------------	----------	-----------------	---------------------

**LANTOKIAREN DATUAK**

HERRIALDEA	UDALERRIA
------------	-----------

**LANGILEAREN DATUAK**

JN./AND.		IFZ/AIZ	JAIOTEGUNA
G.S.KO AFILIAZIO-ZENBAKIA	IKASKETA-MAILA	NAZIONALITATEA	
BIZILEKUAREN UDALERRIA	BIZILEKUAREN HERRIALDEA		

Dagokionean, ..... jaunaren/andreaken ..... legezko laguntzaz, - ..... du IFZ/AIZ-, ..... izanik (2).

**AITORTZEN DUTE**

**Langileak:**

a) 52 urte baino gehiago dituela, enplegu-bulegoan inskribatuta dagoela eta langabeziagatiko diru-laguntzaren bat jasotzen duela.

Gizarte Segurantzako Lege Orokorreko Testu Bateratuaren 215. artikuluan jasotakoak.

Urtarrilaren 10eko 5/1997 EDak araututako Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Erregimen Berezian sartzen diren aldi baterako langileak.

**Enpresak:**

- Langilea kontratatzeko unean enplegua erregulatzeko espedienterik ez duela.

- Diru-laguntza jasotzen duen langileak azken 12 hilabetetan ez duela enpresa horretan lan egin.

- Langabeziagatiko diru-laguntza jasotzen duen langileak azken 12 hilabetetan ez duela enpresa horretan lan egin; Nekazaritza Erregimen Berezian sartzen diren aldi baterako langileekin egiten diren kontratuentzat izan ezik, horietan ez baita 12 hileko muga-epea bete behar.

Beraz, 45/2002 Legearen baldintzak betetzen dituztenez, bi alderdiek (3) ..... kontratua ondoko klausulen arabera egitea erabaki dute:

**KLAUSULAK**

LEHENENGOA: Langileak (4) ..... gisa egingo du lan, ..... talde/kategoria/maila profesionalan (5) ..... dagoen enpresan indarrean dagoen sailkapen profesionalaren arabera.

BIGARRENA: Kontratua lanaldi osokoa da, asteko ..... ordukoa, .....(e)tarik .....(e)tura, legeak ezarritako atsedendiek.

HIRUGARRENA: Kontratu honek (6) ..... iraungo du, .....(e)tik .....(e)ra (7) eta (8) .....(e)ko probaldia egongo da. Hitzarmenak Legeak

xedatutakoa baino iraupen luzeagoa aurreikusiko balu, X batez adierazi  Kontratu honen helburua (9) ..... da.

LAUGARRENA: Langileak (10) ..... euro gordineko ordainsaria jasoko du guztira, honako alokairu-kontzeptu hauetan banatuta (11): ..... Prestazioak kudeatzen dituen erakundeak langileari dagokion diru-laguntzaren % 50 ordainduko dio hilerro, kontratuak iraun bitartean; baina diru-laguntza hori jasotzeko geratzen zaion denboraldiaren bikoitza izango da gehieneko muga. Enpresaburuak, bitartean, langileari dagokion alokairua ordaindu beharko dio: langileari emandako diru-laguntza osatu behar du alokairu horri dagokion zenbatekoa bete arte, eta kontingentzia guztiengatik eta adierazitako alokairu osoarengatik –diru-laguntzari dagokion zenbatekoa barne– dagokiona Gizarte Segurantzako kotizatzeak ardura izango du.

Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Erregimen Berezian (GSNEB) sartzen diren langileen kasuan, erakunde kudeatzaileak GSNEBri dagokion kuota finkoaren zenbatekoaren % 50 emango dio langileari, kontratuak iraun bitartean, eta enpresaburuak izango du dagokion kontingentziengatik GSNEBari lanaldi errealengatik kotizatzeak ardura. BOSGARRENA: Urteko oporren iraupena (12) ..... izango da.

SEIGARRENA: Aldi baterako kontratua denean, enpresak kontingentzia arruntengatik Gizarte Segurantzako enpresa-kuotetan % 50eko hoberia izango du, gehienez 12 hilabetez, baldin eta bere Zerga Betebeharen eta Gizarte Segurantzako kuotetan egunean badago (irailaren 23ko 1091/88 ED Legegileko 81. artikulua, abenduaren 30eko 13/1996 Legeak aldatua), aipatutako hoberia ez dagokien GSNEBari sartzen diren langileekin egindako kontratuen kasuan izan ezik.

ZAZPIGARRENA: Kontratu mugagabea denean, abenduaren 27ko 2/2004 Legean (Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria) (abenduaren 28ko BOE) zehazten diren eskakizunak eta baldintzak betetzen badira, enpresak (13) hoberia hauek izango ditu Gizarte Segurantzako kontingentzia arruntengatik enpresa-kuotetan. Adierazi enplegu-emailea aipatutako arauaren eskakizunak betetzen dituen langile autonomoa den: Bai  Ez . Erantzuna baiezkoa bada eta A), B), C), D), E) eta H) letretan aurreikusitako kontratazioen kasuan hoberiak 5 puntu handituko dira.

- a) Gutxienez sei hilabetez Enplegu Bulegoan etenik gabe izena emanda egon diren edo berrogeita bost urte baino gehiago (13) dituzten emakumeak 1998ko irailaren 16ko Ministerio Aginduak ezarritako lanbide eta zereginetarako kontratatzea: kontratuak irauten duen lehen urtean % 70; kontratuak irauten duen bigarren urtean % 60. Aurreko baldintza gehigarrietako baten bat bete ezean, hoberia % 35ekoa izango da kontratua indarrean jarri eta ondorengo hogeita lau hilabeteetan.
  - b) Gutxienez 6 hilabetez Enplegu Bulegoan etenik gabe izena emanda egon diren langabeak kontratatzea: kontratua indarrean jarri eta ondorengo hogeita lau hilabeteetan % 20.
  - c) 45 urte baino gehiago (14) eta 55 urte arte dituzten langabeak kontratatzea: kontratuak irauten duen lehen urtean % 50; kontratuak irauten duen gainerako urteetan % 45.
  - d) 55 urte baino gehiago eta 65 urte arte dituzten langabeak kontratatzea: kontratuak irauten duen lehen urtean % 55; kontratuak irauten duen gainerako urteetan % 50.
  - e) Langabeziagatik prestazioak edo diru-laguntzak jasotzen dituzten eta kontratatzeak garaian laguntza-urte bat edo gehiago geratzen zaient pertsonak kontratatzea: kontratuak irauten duen lehen urtean % 50; kontratuak irauten duen bigarren urtean % 45.
  - f) Abenduaren 27ko 2/2004 Legean (Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria) (abenduaren 28ko BOE) (Bat 1.3 atala) ezartzen diren egoeretako batean dauden langileak kontratatzea: % 65 kontratua indarrean dagoen bitartean, eta 24 hilabetez gehienez. (15) .....(e)k egiaztatutako egoera da eta langilea talde hauetako batekoa da (16): D)  E)
  - g) Abenduaren 27ko 2/2004 Legean (Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria) (abenduaren 28ko BOE) (Bat 1.5 atala) sartzen diren langileak kontratatzea: % 65 kontratua indarrean dagoen bitartean, eta 24 hilabetez gehienez. (15) .....(e)k egiaztatutako egoera da.
  - h.a) Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Erregimen Berezian sartuta dauden langileen aldeko diru-laguntzak jasotzen dituzten langabeak kontratatzea: kontratuak irauten duen lehen urtean % 90; kontratuak irauten duen bigarren urtean % 85.
  - g.b) Laborantza-errenta jasotzen dutenak kontratatzea: % 90 kontratuaren lehenbiziko urtean; % 85 kontratuaren bigarren urtean.
- b), c), d), e), f) eta g) letretan aurreikusitako kontratazioak emakume langabeekin egiten direnean, kuoten hoberiak 10 puntu handituko dira.

ZORTZIGARRENA: Kontratu mugagabea denean eta enplegatzaileak baldintzak betetzen baditu eta baztertze-arrazoietako batean ez badago, uztailearen 9ko 12/2001 Legearen Lehenengo Xedapen Gehigarria aplikatuko zaio (uztailearen 10eko BOE): BAI  EZ

BEDERATZIGARRENA: Aurreko klausulan erantzuna baiezkoa izan bada, kontratua arrazoi objektiboengatik iraungitzen denean eta iraungipena bidegabekatzen jotzen denean, Langileen Estatutuko 53.5. artikulua adierazten duen kalte-ordaina, lege-testu bereko 56. artikulua xedatzen dituen efektuei jarraituz, zerbitzu-urte bakoitzeko 33 alokairu-eguneko izango da. Urte bat baino gutxiagoko iraupena duten aldietan hileko hainbanatuko da eta gehienez 24 hileroko izango dira.

HAMARGARRENA: Aldi baterako kontratuak amaitzean, bitartekotasun- eta trebakuntza-kontratuak izan ezik, langileak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du. Kalte-ordain hori lan egindako urte bakoitzeko 8 eguneko alokairuaren zenbatekoaren zati proportzionala izango da, edo dagokionean, aplikatu behar zaion berriazko araudian ezarritakoa.

HAMAIGARRENA: Kontratu hau txandakako kontratu gisa egingo da: BAI  EZ

Erantzuna baiezkoa bada, eranskineko "Txandakako kontratua" bete behar da.

HAMABIGARRENA: Kontratu honetan aurreikusitako ez denerako, indarrean dagoen aplikatu beharreko legerian jasotakoa bete behar da, eta, zehazki, martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegileak (martxoaren 29ko BOE) onartutako Langileen Estatutuak –uztailearen 9ko 12/2001 Legea (uztailearen 10eko BOE)– eta abenduaren 12ko 45/2002 Legearen Aldi baterako Bosgarren Xedapenak (abenduaren 13ko BOE) eta abenduaren 27ko 2/2004 Legeak (abenduaren 28ko BOE) xedatutakoa. Era berean, ..... Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoa ere aplikatuko zaio.

HAMAHIRUGARRENA: Kontratu honen edukia ..... Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinaraziko zaio, sinatu eta 10 eguneko epean (17).

## KLAUSULA GEHIGARRIAK

Eta jasota gera dadin, honen hiru ale egin dira ondoren adierazitako tokian eta datan, eta alde interesatuek sinatu dituzte.

.....(e)n, 20.....(e)ko .....aren .....(e)an

Langilea

Enpresaren ordezkaria

Dagokionean, adin txikikoaren legezko ordezkaria

(1) Zuzendaria, Kudeatzailea, etab.

(2) Aita, ama, tutorea edo bere kargua duen pertsona edo erakundea.

(3) Legeria eta alderdiek hartu duten kontratu-mota jarri.

(4) Lanbidea adierazi

(5) Bateragarritasuna eragiten duen lanaren ondorioz langileak bizilekuz aldatu behar badu, diru-laguntzari dagokion 3 hileko zenbatekoa ordainduko zaio ordainketa batean.

(6) Mugagabea edo denbora jakinerako.

(7) Aldi baterako kontratua denean –obra-kontratuak, aldi baterako kontratua eta bitartekotasun-kontratuak–, hiru hil baino gehiago iraun behar du, GSNEBari sartzen diren langileen langabeziagatik diru-laguntzak jasotzen dituzten kasuan izan ezik.

(8) Martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegileak (martxoaren 29ko BOE) onartutako Langileen Estatutuko Legearen Testu Bateratuko 14.1 artikulua xedatutakoa beti bete beharko da.

(9) Adierazi argi eta garbi zein obra edo zerbitzutarako kontratatu den. Bitartekotasun-kontratuak, adierazi kasua. Trebakuntzaren kasuan zehaztu, Langileen Estatutuaren Testu Bateratuaren 11.2 artikuluen arabera, langilea zein taldeakoa den.

(10) Eguneko, asteko, hileko.

(11) Oinarrizko alokairua, alokairu-osagarriak, plusak.

(12) Gutxienez: 30 egun natural.

(13) Halaber, bazkide langile gisa edo laneko bazkide gisa langabetuak hartzen dituzten kooperatiba edo lan-elkarteek hoberiak eskura ditzakete, baldin eta erakundeak inoren konturako langileei dagokien Gizarte Segurantzako erregimen bat hautatu badu.

(14) 45 urteko adin-erreferentzia, kasu honetan, 52 urte dela ulertu behar da.

(15) Ziurtagiria egin duen erakunde ofizialaren izena jarri.

(16) Markatu dagokion laukia, abenduaren 27ko 2/2004 Legean (Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria) (abenduaren 28ko BOE) ezarritako taldeen arabera.

(17) DATUEN BABESA - Eredua honetan jasotako datuek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren babesa izango dute (abenduaren 14ko BOE).